

# Lehen hitzak, (eta ondokoak) euskaraz



... norekin? ...noiz?  
... nola? ...zergatik?

LEHEN HITZAK EUSKARAZ

**Zergatik?**



**“Egun ON”**



**Aktibatu** zaitez, lehen hitzak



- 1 Elkarrizketa bat euskaraz hastera, **elkarrizketa hau euskaraz segitzeko** molderik onena da.
- 2 Parean duzun pertsona ezezagunak **euskara dakien deskubritzeko**.
- 3 Zure solaskidea **euskararen mundura gomitatzeko**.
- 4 Jendea agurtzea, euskaraz bada ere, **kortesiaz eta jendetasunez jokatzeko delako**.
- 5 Euskaraz aritzea, besteen aitzinean hizkuntza hau konkretuki **espazio publikoan existiarazteko aukera delako**.

# LEHEN HITZAK EUSKARAZ

## Norekin?



## “Egun ON”

## Euskaraz aritzeko gomita, deneri luzatu.

Osaba Xan, postari zintzoa, autobus gidari bitxia, herriko etxeko agente brilili-graziosoa, janari dendako saltzaile zuhurra, lankide pisua, ostegunetako maitale sekretua, haurtzaroko lagun erdalduna...

- 1 **Ez fidatu** itxuran, janzkeran, adinean, sudurraren luzeran edo jatorrian.
- 2 **Ezagun edo ezezagunekin, egoera formalean edo informalean**, jendea euskaraz agurtzea jokamolde kontu bat da, ez testuinguruaren arabera.
- 3 **Lehen hitzak euskaraz beti**: goizez, arratsez, nekatua, pozik edo forman, berdin-berdin.
- 4 **Elkarrizketa osoa euskaraz segitzeko gai ez bazira ere**, lehen hitzak euskaraz erran eta beharrez erdarara lerratu.
- 5 **Sorpresa ederrak** izango dituzula kontuan izan.

# LEHEN HITZAK EUSKARAZ

**Nola?**



**“Egun ON”**

**Ozen, argieta alai,  
lehen hitzak  
euskaraz bai!**

- 1 Ez lotsatu, entzun behar zaitugu:** ongi ahoskatu, ozen mintzatu eta doinu goxoa erabili.
- 2 Jarrera zaindu:** gorputzaren hizkerak garrantzia du.
- 3 Zuk bota lehen hitza:** errexago izanen da lehenik zuk euskara eskaintzea, ‘Bonjour’ / ‘Buenos días’ bati ‘Egun on’ erantzutea baino.
- 4 Parekoaren erreakzioei arreta eskaini:** nola erantzuten du? Zer portaera du? Ez nau ulertu edo harrিতua izan da? Euskaraz segitzen ahal dut?
- 5 Erdarara lerratuz gero, berriz lotu euskarari:** agurra partekatzea baino gehiagorako balio du euskarak.